


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

259n. zenbakia
zezeilla 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARRIAGA TA BALZOLA'TAR JUAN KRISOSTOMO

- ERESGILLE BIKAIÑENETARIKO BAT
- JAIO: BILBAO'N, 1806'gko URTARRILLAREN 27'an
- ERIOTZA: PARIS'en 1826'gko. URTARRILLAREN 16'an, au da 10 egun bere 20 urteak bete baiño lenago.
- PARIS'en MONTMARTRE'ko ILLERRIAN
- EZ DAKI IÑORK ZEIN ILLOBITAN

GURE ARTEAN

MARIA LUISA **LARRAZABAL**

Gizaldi onen asikeran, Bakioko sartukeran, Goikolan, indarrola bat egoan "IRURAK BAT" izenekoa.

Arek Bakio. Mungia. Bermeo, Jatabe eta inguru guztira argindarra bialduten eban.

Ango arduraduna. Felix Larrazabal, Gaminizko (Plentzia) semea, musikari jatorra, zortzi seme -alaben aita, bost neska lirain eta iru seme lerdenen aita, atan be.

Iru mutilak tantai lakoak ziran eta bost neskak politak, krabelinak baino politagoak, gorputz lirain eta begi ederrekoak.

Areotariko zaarrena, gure Maria Luisa, gaur egun Basigoko etxeoandrea dogu, leengo alkate zaarraren alarguna, 98 urtekoa eta Bakioko pertsonarik zaarrena he bai.

Maria Luisa Gaminizen (Plentzia) jai() zan eta bederatzi urtegaz-edo, beraren aitaren bearlekua zala-eta, Bakiora etorri bear izan eban biziten. Ogei urte eukazala, Maximo Zabala Basigoko etxagunagaz ezkondu zan, berau sasoi atan Bakioko alkate jauna zala.

ZER: Zuk, bai, zuk Maria Luisa Bakion oso osoan bete zenduan antxinako esakunea: "etorri, ikusi eta irabazi".

MLL: Zergaitik dinozu ori?

ZER: Bada, Plentziatik Bakiora etorri eta Basigoko etxaguna eta erriko alkatea zana, barriz, arrapatutea lortu zendualako.

MLL: Nork urten ete eban irabazten? Neuk be neure arrokeritxuak esan bear deusudaz, bada. Neu be intxaur bakoa ez nintzan izango...

ZER: Egin ete eban zure gizonak, alkate zala, gerokoek gogoan artutekorik?

MLL: Nik dakidala, gauza bi bai beintzat. Leenengoa, garrantzitsua, beintzat: erria bat egitea. Zubiaur eta San Pelaio, Bermeokoak izanda Bakiora ekarri ebazan, erria andiagotuz. Ona emen orduko Errege Legeak dinoa:

"Ontzat artnten dot, orain' arte Bermeoko udalerrarenak izan diran Zubianr eta San Pelaioko lurraldeak Bakioko udalerrari geitutea. "Alfonso XIII. Erregearen Legea. Madrilen, 1927ko arriaren 4an. Eta bigarrena, urak errira ekarte.

ZER: Basigok badauka entzute andia ango txakolina dala-eta. Noztik egiten da txakolina Basigon?

IVILL: Ni kanpotik etorritakoa nazanez, nik ez dakit ori ondo. Baina gure Mariok, semerik zaarrenak, sarritan esaten dau, bein baten, berak aititari auxe entzun eutsola: "Nik beti ezagutu dodaz maatsondo zaarrak Basigon".

ZER: Lortu ete dozue inoz txakolin saririk -eta?

MLL: Zagoz isilik. Ganbaran be ez daukagu lekuri eurontzat eta. Irabazikeran artuten dau poza norberak, baina, gero areei begira egoteko astirik be ez daukagu.

ZER: Izan dozue aldakuntzarik txakolingintzan?

MLL: Txakolingintzan bertan ez andirik. Bai baina, maatsak jagonkeran eta zerbitukeran. Antxina bokoietan, upeletan. Gaur egun, botiletan. Leen baino txakolin geiago egiten dogu orain, ohea eta, ganera, obeto saldu.

ZER: Eskerrik asko Maria Luisa, eta beste batera arte.

An lotu jaku, barretsu gure Maria Luisa, Bakioko arnama, Basigoko ateburuko parrapean, maatsmordoei begira, noz txakolin barria eurotarik egingo.

ARETXABALETAN OMENALDIA

Joan dan Abendu'ko 14'an, ospakizun eder bat egin zan Aretxabaletan, su-izkillatutako Peña'tar Jesus idazlearen oroimenez.

Oso ondo egon ziran ospakizunaren bitartez ikusi genuzanak, baiña zori txarrez, oso labur eta durundi gutxi-koa, ainbeste merezi dauan Josu Peña'k, Euskal Erriarentzat guztiz ezaguna izan bear daualako eredu izateko.

Ospakizuna, Aretxabaletako Udal-Etxe zaarrean bete zan, eta egia esanda, gela artan ez zan egon lekurik ainbeste Atxabal'dar eta kanpotik joan zira-entzat.

Maia, Gipuzkoa'ko Aolkularia, Aretxabaleta'ko Alkatea, Lenizbarrutia'tar Lorea Gipuzkoa'ko Aldun-Etxean Ikastolen arduraduna dana eta bere aita Peña'tar Jesus'en lagun aundia izan zana, Atxa'tar Jesus Iruña'ko San Fermin ikastolaren zuzendaria izan zana eta Paña'tar Jesus'en lagun miña, Peña'tar Lorentzo Peña'tar Jesus'en anaia, eta Latxaga Jaunak bete eben.

Danak mintzatu ziran Peña'tar Jesusi buruz: beren Abertzaletasunagaitik, eta Gipuzkoa'ko Aolkulariak bai Aretxabaleta'ko Alkateak, olako giza-semeak nola jasten daben curen berotasunarekin Erri bat, Lurralde eta asken baten Euskalerrria, Euskadigaitik eduki eben Nortasunezko Abertzaletasuna, indar guztiaz arduratsu ta maitasunez beterik, curen biziak Euskadiren altoan emonarte.

Baiña danez gain Peña'tar Jesus'en izaeraren zeazkuntza goxo-goxo eta edertasunean egin ebana Latxaga Jauna izan zan. Badauka arrazoi naikoa ori eta gauza azkoz geiago egiteko dakian guztiaz: Euskerazaintza taldeak idatzia dan liburua "36'ko gudaldian su-izkillatutako Euskal Idazle Gazteak" argitaratu barik dagoana egiteko, bera izan dalako zuzendari eta langillerik aundiena.

A ta guztiz ere omenaldiko batzarretik urten gintzanean, ni lasaitu barik urten nintzan, zeozeren egarriaz urten nintzalako. Kanean, Aretxabaleta'ko Alkatea, Latxaga, Lourdes nire emaztea eta ni alkartuta geratu giñanean, Latxaga'ri esan neutson ni arduratuta itzi ninduan gauza

zer izan zan: Pare-gabeko Euskal-gazte auei guztiai! "EZ DAUTSIELA IRAKATSI ESPAINA GORROTATZEN, EUSKADI MAITATZEN IRAKATSI DAUTSIELA" esaten ebala; eta ori bakarrik naikoa dala eredu lez guk artzeko, or! gaudelako: Nortasunaren ulermena bete ezinik, Abertzal ekintzako lanetan buruz-bera gabiltzalako

alkartu ezinik, ELBURUA'ri begitu barik! taldeen arrotasunera begituten gaudelako, eta asken baten "NORBEREN ARROTASUN UZTELA'ri".

Ori zan nik ikusi nebana ezean geratu zana ospakizun ortan

E U R E N
ABERTZALETASUNA
ELBURUA'ri BEGIRA EGON
ZALA, EUREN IZAERAK
edo NORTASUNAK
KONTUAN EUKI GABE,
EUREN NORTASUNEZKO
INDARRAKAZ, BATERA,
BULTZ EGITEN EBELAKO
EUSKADI ASKATU
DAITEN".

Ospakizun ederra izan zan benetan, mamintsu eta berotasun aundiagaz azalke-
ratuta, Peña'tar Jesus'en bizi laburra baiña luzca Abertzaletasunaren ekintza gaitik argitua.

Amaieran Jesus'en familiak, liburu txukun eta polit bategaz oparitu ginduzan bertan egon giñan guztiak. Baiña nire ustez, gauza bi onein zorrean geratu zala ere bai: Euskadi osorako izan bear zan ospakizuna, Aretxabaletan

bakarrik geratu zan eta gaiñera aldizkaritako berri-idazle barik. Eta bigarrena: ez zala azpian marratu edo kakotxartetu (entrecomillar), guretzat benetako eredu izan bear dana "EUREN ABERTZALETASUN AUNDIA BETI ELBURUA'ri JAINKOA'ri, EUSKADI EUREN LOTSAGIZUNEZKO ARDURA NAGUSIENETIK BEGIRA EGON ZALA".

Uste dot, bete egingo dirala akatz txiki-aundi oiek, liburua edo Euskerazaintza'ren aldizkaritan argitaratu egiten dan aurkezpenean, gure Abertzaletasunezko ekintzak zuzentzeko, bear-bearrezkoak diranak EUSKADI ASKATZEKO.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001'ean URTARRILLA'ren 5'an



BIZIA ERESIA DA, ABESTU EGIZU

Izadira ta gizadra begiratuta gizonaren barne bizialilluraturata geratzen da. Izan bere, jakiturriak, maitasunak, ertiak euren zoramena darie alderdi guztietatik.

Ain Egille jakintsuak egin zituan gauzak, jakituriaren ta maitasunaren zirrara, nunnaitik zabalitzen dabe. Ortxe agertzen dira esku altsua, begi argia ta maitetsua. Jakitunak jakituria, olerkariak olerkia, erlilaria ertia, muskalariak abestia indartsuakarri en trebetasuna darie.

Era askotako almenak euren eratako gaitasuna agertzen dabe. Izadia ta gizadia ta oroz gotik, euren Egillea entzuten dagoz.

Ori dala-ta, gizonak eta gauzak arrotu zuén egoak eta biotzak eta betetu zuei dagokizuen zeregiña. Giza argia zorroztu zure izpiak, askatu miña, artu idazkortza eta kanta egiari, zuzentasunari ta gizontasunari.

Gizadi osoa begira dago, beratsuak eta zapalduak ilzoriar, zure egi ta argitasunaren zain. Ez lotsatu, ez bildurtu, ekin zer bakoitzari dagokion arloari.

Gorantza aditurik, goi urdiña argiz beterik dago. Zabaldi zoragarri artan izar ureak zein baiño zein ederrago, dizdiz, dagoz.

Abestu Egilleari zuen eder-miñez, argitu luna, poztu gizadia, azaldu lurbira osoari zuen artean dozuen zoramena bizia. Emon gau illunari grazia, bidaztiei argia, mendi, baso ta arkaitzei bakearen ditzira.

Izarrak, abestu urregorritzko itzetan zuek sortu zaituen jakitunari.

Artu dozuen argi guztiagaz ez dozue ikusten, baiña zueri bagira dago izar koroaren goi aldean.

Egiz, abesbatza sortu zan ta gau guztian ez zan ixildu abestuten itxasoari itxasoarenak, mendiari mendiarenak, basoari basoarenak, baratzeari baratzearenak, basetxeari basetxearen soñu atsegingarrienak ta biotzak abestu leizekan abesti samurrenak.

Ta egunezko izar garaitu eziña, kanta egiezu ur zabalerei, zeru urdiñari, lorezko baratzei ta arkaitz gallurrei. Danak begira daukazuz zure eresia entzun nairik. Argitu mendi tontor osteak, lur zabalaren erraiak narotu, itxasogain zabalak, dizdizeratu ta sagastietako lora zuriak apaindu.

Pozaren iturria zaran eguzki argia, abestu egiezu zure babaspean dituzun izadi polit ta gizadi kutunari.

Entzun nairik dagoz, zure ditzira unezkoak gozartu nai ditue. Eguzki xarmangarria, poztu egizuz izadiaren bazterrak, ibai, solo, muru eta mendi, abestu egiozue urrezko abots eta dizdiz biziaren guriñaz orbiztu daitezen.

Euri ta intza biok zarie biotz oparo ta ongilleak. Gizadia ta izadi zuen abestia entzun naiena dagoz, batzuetan itxasora begira ta beste batzuetan odeietara adi.

Zuen abestiak jaldi egizuez trumoi eta tximisten artean, pozgarriak dira-ta intzaren ezoa ta euriaren bustia lurraren babesean.

Kanta zuen soñuan bizia eskeiniz lurrari ta gizadiari, zuen oiva barik ez dira ezer, lurra kikildu egingo litzake ta gizadia il.

Intzak, abestu goizaldian ta zidartu lurrak eguzkiaren sorreran, irripar egin dagien frutu ederren itxaropenean.

Euriak, bota parra parra, gurin gozoa, zugatzak, landarak, bederrak, luna dana itxaroten daukazu-ta. Alleluia... Zuen abotsak indartu ta poztu bear ditu lurraren enaiak ta gizadiaren bizia. Zure laguntzaz indartuta, pozez ta gogoz, lan egin dagien gizonak. Guztiak batera goratu dagiezan, ain gauz ederrak sortu zituen esku altsuak.

Otzak kikildu egiten dau, su eta beroak bizkortu. Ori dala-ta, izadiak eta gizadiak su eta beroagaz diardue berbetan. Otzaren gogorkeria ezin dabe jasan basurde ta basantzak, origaitik leizetera doaz otzaren aurkako babesaren billa.

Otzak il egin eban baratzean lorea... Otzak ez dau enukirik txoriak negarrez jarten dituanen, otzak ez dauka biotzik ardiak mendiaren magalean dardaraz ta gosez ilten diranean. Otza da bizaren eriotza.

Su eta beroa biziaren ametsa zaree negu ta udabarrian. Zuen graziak indartuten dau luna ta giza semearen bizia zartzaroan.

Urtearen edozein arotan abestu egiozue lurrari, iturriari, gizonari. Abestu oroz goitik, beroaren sorleari, izanen egilleari. Zu barik ezin bizi da giza-semea, lagundu egiozu gizonari mendi, gallur ta arruetan, zure maitasun beroaz poztu egizu gizadia, otzak ta nekeak il ez dagien.

Gau illun, otz eta dardarati ondoren, zuri-zuri, agertu dira ibar, baso ta mendiak. Abots zurien abestia, argi-argi, agiri da.

Zabaldi guztiz bat egindala dirudi muño ta mendizkak lauturik. Ortzia dago lur gaiñera begira ta luna, ano arro, ta zuri-zuri, jantzirik, zerura adi.

Bear zana zan. Lurraren etsaiak nunnaitik, agertzen asita egozan. Kokoak eta anak laudara eta zugatzetan zorigaiztoko aiñanez kalte negarganiak egiten ebiltzan.

Edurak, abestu izadiari somonoak baztertu ta mendiak urez aseturik, zabaldu ateak bizi barriari. Edurra, bizita zara-ta, emon zure indana egarri dan lurrari, ogia ta ardaia sortu dagiezan lurreko errege dan gizadiarentzat. Eduna, eresia zara ta zure abots soli zuriagaz abestu egiozu zeru ta lunari. Bizia zure laguntzaz ugaritu dedilla. Eduna abestu maitasunari.

PAULIN

ZIORTZA (VII): ILLOBIETAKO IDAZKIAK (LAUDAK) KORUA, SAKRISTIA, TORREA

IDAZKIAK

Eleizearen barruan aitamen bereizia zor jake illobietako idazki edo laudai. Bearen gainean dagoz arri -lozen artean.

Geienak txaututa (gastauta) dagoz, irakurri eziñeko eran, baiña bi ondo zainduta agiri dira Mikel Deunaren eleiz-tokiaren ondoan. Batak Muxika sendiaren ikurdia dauka eta, apaingarri lez, leoiak, aingeruak otoizka, egaziak eta inguruan mats-mordak, gotiku tankerako beste apaingarri batzukaz. Beste bat Eibar'eko Untzuetan sendiaren ikurdia da (zugatza, onen erdian otso bi, antzarra sugeagaz eta idazki au erderaz: "Guztiok biotz-zabalak". Goian buru-oskol bat landarazko apaingarriakaz eta beste idazki au erderaz: "Untzuetako Jauna dan Ibarra'tar Pedro kontulariak agindu eban au ipinteko 1544".

Eleizearen erdi-erdian dago beste illobi -idazki edo lauda bat, irakurri eziñekoa: Kurutze bat eta onen oiñean, barruan kurutzea dauan makobil bat eta goian idazki au: "1448. P. Lopez Ibaseta".

Eleizearen atzeko aldean be, ate nagusiaren ondoan, lauden ondakin batzuk eta apaingarri batzuk agiri dira, baita Muxika ta Butron sendiaren ikurdiagaz dagoan bat eta beste bat Bolibar-Jauregi'rena errota-arri bategaz.

KORUA TA ORGANUA

Sabai bi beeratuak eta erdian age bat dauala dago korua atzean, erriaren lekuaren erdian. Arrizko mailladi zabal bat dauka igoteko.

Koru onetan ez dago ezer bereiztekorik, organua izan ezik: 1670.n urtean ipiñia da eta 8.000 errial kostatzen. Lenago beste organu bat egoan Irusta'tar Diego abatak erosia. XVIII gizaldiaren azken-inguruan konpondu eban organu au Frantze'tik etorritako konpontzaille batzuk, baiña orain ez dabil.

Koruan egoan lenago kaxa bat eta onen barruan lekaidetxearen agiritegia baiña au Bilbao'ko Aldundiaren Liburutegira croan eban. Ekarri bear leuke!

Jesarleku arunt batzuk dagoz, zurezkoak eta zarrak, eta erdian liburu-mutilla edo fazistola abesti-liburuak irakurteko. Pergaminozko liburu aundi oneik 1790n, urtean egin ziran, apurtuta egozan lengoen ordeztu irakurteko.

Korupuan Bateo-lekua ta ontzia dagoz. Azkenengo au 1841'ekoa da eta inguruan zurezko sarea dauka, 1666n. urtekoa.



SAKRISTIA

Sakristia elizearen buru-aldean dago eta altara-ingurura dauka sarrerea. 1606n. urtean egiña da, lenago egoan beste baten lekuan. Altzariak intxaurkizkoak dira, Markiñako arotz batek egiñak, Sagrario bat dauka, bear ba'da Aiala'ko Juan'ek egiña eta onen atean Ecce Homo'ren irudia.

Ikusgarriak dira baita, eskuak garbitzeko ontzia eta XVII gizaldiko kustumak eta zarragoa dan eleizbidetarako kurutze bat, au ber-jaiotza aldiko tankerakoa.

TORREA

Eleizearen egoaldean dagoan arbotantearen oiñaren gainean dago oiñarrituta torre lautua, beronen apaingarriak teillatuaren maillan dirala. Emendik begiratuta argi ikusten dira Lekaide-Etxearen toki guztiak.

Apingarriak teillatupean dagoz eta gainean kanpaien lekua. Au gizaldi onen asieran egiña da: burdiñezko kanpai-lekua kanpai bigaz. Torrearen sorkaldera ta sarkaldera, erpindun arku aundi bi dagoz, antza dagonez torrea-aren astuntasunari eusteko.

OLAZAR'tar Martin'ek

ANDER AGIRRE'GAZ BERBETAN

(EGAZKIÑEKO PILOTUA)

Guztiok dakigun lez, Ander Agirreren erroak JAU-REGIn (Dxeurin) ondo sartuta dagoz. Bizitzearen zati andi-andia Bakion emon dau. Bakion mutil eta gizon-du zan, batean Bilbon bestean Bakion bizi izan arren be. Bakion egin zan dantzari eta txistulari. Bakiotarra da odolez eta biotzez. Bakiotar au, bada, egazkinetako pilotu izategino eldu da. Gaur egun, munduko zeruak igaroten dabil, ara-onaka. Beragine joan gara bada, nontzebarri, berak daukan ogibidea zelazekoa dan jakiteko.

ZER: Zure ogibidea ez dala oso oikoa gogoan izanda, aitatu zeinke zeintzuk diran pilotu ikasketak bideratzeko lekuak? Eta zein dan pilotua izatea lortzeko jorratu bear izan dozun bidea?

AA: Une onetan estatu-mailan badagoz bost edo sei eskola pribatu, ze olango ikasketak egiteko dirua tartean dago beti, naiko karuak diralako.

Nire esperientziari jagokonez, 1988an Iberiak beka moduko programa berezia atara eban, Lufthansagaz lortutako akordio bateri esker, ikasleak Lufthansak Bremenen daukan eskolara bialtzeko.

Ikasketak, bada, egin aal izan nebazan dirua aurretik ipini barik eta orreek ordaintzeko, gaur egun ondino be, ilero kentzen deuste zati bat nominatik.

Ikasketak olantxe ordaintzen dodaz. Alan da ze, leenengoaz Bremenen egon nintzan zortzi ilabetean eta andik Arizonara joan *ginan*, egaldiak eta oinarrizko prestakuntzea egiten.

Atzera be Alemaniara joan eta bertan entrenamendu aurreratua ez eze, prestakuntza teoriko guztia be egin genduan. Guztira urte bi egin genduzan eta, egia esan, esperientzia on-ona izan zan.

ZER: Eta nondik sortu jatzun zaletasun ori? Txikitatik pilotua izateko amesik euki dozu?

AA: Bai, txikitatik euki dot. Gogoratzen dot, Sondikantik pasatzen nintzan bakotxean, egazkin bat ikusi eta pentsetan asten nintzala ea jende ori nora joango zan, zein lekutara.

Orduan, perito ikasketetako 2. kurtsoa egiten nenbilela, Iberiaren programa orrek urten, nik ikusi eta neure buruari itaundu neutson "zergaitik ez naz joango, ba?" Eta alan, nire burua aurkeztea erabagi eta Madrilera joan nintzan. An proba-piloa egin bear izan neban: psikoteknikoak, ingeleseko azterketea, psikologoagaz bakarkako

alkarriketak, medikuen azterketak... Eta alan aukeratu ninduen Alemaniara ikasten joateko. Dana dala, zaletasun ori txikitatik euki dot.

ZER: Sarritan aitatzen da pilotuen bizimodua ez dala emoten dauan baizen erreza. Izan be, ordu-aldaketak jasan bear izaten dabez, bai eta makina bat otel, janari eta leku ezbardin be. Zelangoa da pilotu baten bizimodua?

AA: Nik beti esango dot gogorra dala, baina, egia esan, oso gustura nabil.

Badagoz, beste ogibide batzuetan lez, alderdi negatiboak, esaterako orduen aldaketak, gaez eta astegoienetan bear egin bear izatea... baina beste alderdi batetik, leku ezbardinak eta jende barria ezagutzeko aukerea eukiten dogu, au da, beste pertsona batzuk oporretan egiten dabezan ainbat gauza, ba, nik bearrean egiten dodaz.

ZER: Baina zein puntutagino daukazue leku barri orreek ezagutzeko aukerarik? Izan be, egaldien ostean, egonaldiak naiko laburrak izaten dira, ezta?

AA: Esate baterako, nik azken aldion Iparramerika eta Egoamerikara egiten dodazan egaldien barruan, norma-lean, beti euki dot, gitxienez, pare bat egun uriburuak eta inguruak ezagutzeko.

Orrek, jakina, ez dau bidaia luzerik egiteko aukerarik emoten, baina ez dago txarto be.

ZER: Oker ez banago, orain dala urtebete edo urte Verdi Iberia eta pilotuen arteko matrakea sortu zan arrazoi ekonomikoak zirala eta. Gaur egun piloturen baten daukan soldatea kontuan artuta, ez zaree pibilegiatuak sentitzen?

AA: Ni oso pozik nago bearragaz eta kobratzen dodanagaz, baina kontuan artu bear da, guk daukagun ardurea eta erantzukina andia dirala, norberaren bizia tartean dagoalako.

Ganera, gure bearrean uts bat bakarrik egin ezkeru, gure bizia ez eze, atzean dagotzan berreun lagunena be iminten dogu arriskuan, bai eta egazkina bera be.

Esaterako, nik orain gidatzen dodan egazkinak 15.000 milioi pezeta balio dau.

Erantzukina, bada, andia da. Dana dala, ondo kobratzen doguna onartu bear dot, au da, gure ardurearen neurrian.

ZER: Ori egia izanda be, ez dagoz, gaur egunean,

sistema guztiak guztiz automatizatuta? Lurrartzea bera be ez da automatikokiro egiten?

AA: Ba, oraingo egaldi luzeetan gitxiago, ilabetean bi edo iru egiten doguz.

Dana dala, ikuste edo ara txarra dagoanean, automatismo guztiak erabilten doguz, eta, egia esan, maniobrak zoragarri egiten dabez.

Gaur egun, tresna automatikoak guztiz fidagarriak dira.

ZER: Zelango prestakuntzea bear da egazkina gidatu aal izateko?

AA: Nire eritxiz, gaxena asikera egiten dan oinarriko entrenamendua da, ze, airean doan egazkin txikia gidatzeko be, makina bat tresna kontrolatu eta prozedura guztiak ezagutu bear dira. Ganera, orientazino espaziala bearrezko-bearrezkoa da.

Edozelan be, bein ezagutu bearreko tresna guztiak eza gututa, askoz errezagoa izaten da etenbako prestakuntzeari jagokozan ikastarotxuei normaltasunez oratzea.

Olangoetan, dana dala, larrialdiei aurre egiteko ariketak goititu bear izaten doguz (esate baterako, simulagailuan motorrak erre edo lurrartzeko tresnea ez dabilenean) eta, alan da ze, dan-dana arrakastatsu goititzea ez da bape erreza izaten.

ZER: Ikusi dozu inoz zeure burua estualdiren baten?

AA: Ba, larrialdi gogorren baten sekula be ez. Arazo tekniko txikerrak euki dodaz, eta orreetan bildurgarriak ekatxa andiak izaten dira.

Une onetan, esaterako, Ameriketara joateko, Karibea igaro bear eta bertan itzelezko ekatxak izaten dira, inetasia, justuriak... sekulako ekatxak.

Olangoetan, egazkina mobidu egiten dan lez, jendearentzat oso bildurgarria izaten da.

Guk, beintzat, ez dogu ain txarto pasetan, badakigulako zer dagoan eta egazkinak zelango indarrari eutsi leion. Ganera, dana ilunpean lotzen da eta tentsinoa igarri egiten da.

ZER: Zabaldu bear izan deutsezu inoz bidaztiei nasaitzeko mezurik? Zelan egiten dozu ori?

AA: Ez dago misterio andirik. Jendeari nasaitasunez berba egin bear jako eta egia esan. Ekatxa badago, ekatxa dagoala esan eta kito. Ori bai, patxadeari eutsi bear jako berba egikeran.

ZER: Gaur egun, konpainien arteko lela oso andia da. Orreri esker gero eta egaldi merkeagoak daukaguz, baina segurtasuna ez da leen baizen kontuan artzen. Bermatuta dago egazkinen segurtasuna?

AA: Nik ezagutzen dodan konpainia Iberia da, eta guk dakigula, oraingoaz, segurtasunari ez jako zatirik kendu.

Dana dala, Sobiet Batasuna desegin zanetik, berbarako, ango konpainietan ezbear kopurua anditu da. Ori bai, prezioek jasten jarraitzen badabe, bearbada, egunen baten segurtasun mailea ez da ainbeste jagongo.

ZER: Lorretabide au erabilten dauan jende kopurua kontuan artuta, egazkinez bidaiatzea "demokratizatu" egin dala esan leiteke?

AA: Orretan ez dago zalantzarik. Ganera, edozein errialderen ekonomia garatzeko guztiz bearrezkoa da jendea eta merkantziak mugitzea. Oso onuragarritzat artu bearra dago pertsona guztiek egazkina artzeko aalmena eukitea.

ZER: Atan bada, gaur egun aireportuak masifikatuta badagoz, eukiko doguz, emendik urte batzuetara, arazo asko egazkina artu aal izateko?

AA: Gero eta geiago. Izan be, egaldien kopurua gorantz doa, urtean %4 inguru aziz.

Ezozelan be, bearrezko konponbideak topatuko diralako daukat, esaterako, aireportu andiangoak eta konpainia geiago egotea.

Atan da ze, ez dot uste ori arazo larri biurtuko danik.

ZER: Leenago aitatu dozu pilotua izatearen alde ona leku barriak ezagutzea dala. Orain arte ikusi dozu-errietatik zein izan da geien erakarri zaituana?

AA: Orain dala urte bi Costa Rikan egon nintzan eta ango jendeak zurtz eginda itzi ninduan, guztiz begiko eta abegikorrak izan ziralako.

Ori Egoamerika osoan jazoten da, baina errialde orretan batez be igarri neban ori. Beti egoten ziran norberari lagundu edo norberagaz ibilteko prest. Errialde zoragarria da. Ganera, Ertamerikako toki matrakatasun, Nikaragua eta Guatemalaren ondoan, egonda be, ez dauke gudarostetik, baketsua da... Niri leku ikusgarria eta zoragarria egin jatan.

ZER: Azkenik, eta itaun informal batera pasatuz, pilotua nora joaten da oporretan?

AA: Askotan egin deuste itaun ori eta beti erantzun bera emoten deutset: Bakiora. Udan oporrik euki ezkeron, ona etorten naz eta, osterantzean, Bilbon lotzen naz. Ze mendira joatea gustetan jat, mendi bizikleteagaz ibiltea eta olan.

ZER: Eskerrik asko, Ander. Eta urrengora arte.

ZIDURI

ZUGATZAK DOANGO LANGILLERIK
ONENAK DIRA: GIZONEN ALDE GAU TA
EGUN LANEAN DIARDUE

GAUEKA ERRI KIROL TALDEA (IDI-DEMAK)

Gure ZERen alde onetako taldeen txokora "Gaueka" erri kirol taldea datorku oraingoan. Ordezkarilez, danok ezagutzen dogun Felix Azkaiturrieta "Bolibar"egaz egon gara berbetan. Or daukazue berbaldi aren emoitzea.

ZER: Asteko, nondik dator "Gaueka" izen ori?

FA: Ba, Jesus Olazar eta biok bultzatu genduan proben inguruko talde au eta izen bat imini bear jakola-eta, errikoa imitearren, imini geuntson izen ori. Gaueka baserriko semea zan "Perejille" antxina probalaria izan zan. Ori dala eta, ba, beste batzuk be egon ziran baina, ori aukeratu genduan.

ZER: Zenbat urte emon dozuez?

FA: Ogei urte pasauta. Gitxi gorabeera, orrek izango dira probarria apurtu zanetik eta ona pasau diranak.

Jesus Olazar, Sabin Muruaga eta irurok ibili ginan orduan.

Urrengo urtean, bertan beera itziteko izan ginan, baina Udalak lagundu euskun apur bat eta orduan asi ginan Jesus eta biok bakarrik.

ZER: Nor ibiltzen zan antolatuten leenago?

FA: Sabin ibiltzen zan. Amabost urte inguruan ibili zan.

ZER: Azaldu eiskuzu zein dan zeuon bearra.

FA: Leenago, bear geiago egoten zan, etxerik etxe joaten ginan idien bila probetan apuntetako.

Gero, probaleku zaarra estaldu, garbitu eta bertan mekanotuboa imini bear izaten zan eta ori be bear andia izaten zan.

Gaur egun, probaleku barria badaukagu eta zozketarako deia egiten dogu gura daben probalariak etorri daitezana.

Orain, probak eurok antolatu baino ez doguz egiten.

ZER: Erri kirolak beerantza doaz, ezta? Uste dozu zuk probak be atzeraka doazala?

FA: Oraintxe urte bi edo irutik onantza goraka egin dau apur bat.

Ze orduan asi ziran "doping"aren aurkako kontrolak egiten eta epaileak be zorrotzago izaten karreteruakaz.

Orain ezin lei idia leengo beste kiñau. Orain datozan

probalariak profesionalagoak dirala esateko moduan gagoz, ze leenago idi buztarri txar asko ibiltzen ziran probetan, eta ganora barik.

Orregaitik ba, badinot, seiotasun eta profesionaltasunean irabazi egin dauala erri kirol onek.

ZER: Joaten da jende modurik probak ikusten?

FA: Askorik ez. Orain zazpi urtera arte dirua galtzen ibili gara, baina orain publizitateagaz diru apur bat be batzen dogu eta gero Udalak eta Foru Aldundiak be laguntza andia emoten deuskue.

ZER: Jokolarientzako mundua izan dira beti probak. Jokatuten da dirutzarik oraindinokarren?

FA: Oraindino be, badagoz puntu gogorrak. Leen baserriko dirua artu eta probetara joaten ziran asko jokotuten, baina gaur ez.

Orain danetariko jendea da jotuen dauana.

Baina erri inguru batzuetan beste batzuetan baino askoz geiago jokotuten da. Bakion ez dago olazeko afizirik jokora. Mungialdean, barriz, bai, esate baterako.

ZER: Zeure eritxiz, zer egin bear leiteke probei aurrerantzean be eusteko:

FA: Seriotasuna da garrantzitsuena. Probalekuak garbi, "doping"aren aurkako kontrolak eta idi buztarri onak plazaratu.

Leenago ogeita amabost buztarri be apuntatzen ziran eta askok akulu guztiak apurtu, untze gitxi egin eta ikusizun pobrea eskaintzen eben.

Orain ia olangorik ez dago.

ZER: Desagertuko dira zeuokaz Bakioko idi probak? Etorrizuna, zelan ikusten dozu?

FA: Ez. Ez dago gazte asko baina oraintxe iru-lau badabilz laguntzen.

Arazoa, Udalak eta Foru Aldundiak laguntzinoa emoteari itziten badeutsoe, orduan etorri leiteke.

Baina, ori bai, gustatuko litzakigu gazte talde bat sartzea, geuk be apurka-apurka eurei ardurea itziten joateko, ze urte askotan kantsau be egiten da norbera.

ZER: Ederto ba, Felix, au izan da dana. Eskerrik asko eta urrengora arte.

Unai BEITIA

BEGOÑA (VII): BESTE GUDALDI BAT

1873n. urteko zezeillaren 11n. egunean, Saboia'ko Amadeo'k bere erregetza itzita laster, España'ko II Erkala aldarrikatu zan. Ondoren lez urduritasun aundia agertu zan erritarren artean eta Karlos'tarren jokabi-deak indar aundia artu eban barriro. Bizkaia'n nagusi agertu ziran Karlos'tarrak, Bilbao'n bertan izan ezik.



Urte orretako agustuan etorri zan VII Karlos erregegaia Gernika'ra Lege Zarra zin egitera.

Itxaroteko gauzea zan ba, Bilbao'ren aurka erasoia etorriko zala. Agustua-ren 10n. egunean asi ziran danbadak eta gudari karlostarrak Bilbao-inguruko muñoetan egozan zur eta artega. 20n. egunean kendu eutsoen Bilbao'ri ura eta sar-bide guztiak itxi ziran. Iraillean esan eutsoen Kastelar España'ko agintariari Bilbao inguruta egoala. 29n. egunean, Karlos'tarrak Olabeaga'ko sarbidea itxi eban katez eta burdin-ariz eta Bilbao esituta geratu zan. Urrengo urteko orrillaren 2n. egunera arte iraun eban egoera orrek eta Bilbao'k gosea eta lerketak jasan bear izan ebazan.

Barriro inguratzen eban uria suzko garrikoak eta aurrerengo Begoña egoan. Santutegiak galdu eban bake-giroa eta guda-toki sendo biurtu zan.

Abenduaren 3n. egunean, danbaketa sendo bat izan ondoren, Baltzak, liberalak, sartu ziran Santutegira. Abade-taldeak, aurreko guda oraindiño gogogan eukalako, eleizatik irudia ta balioko gauzak atera eta Errefujio deritxon Maitasunaren Ama ren monastegira eroan ebazan eta antxe geratu ziran illearen 14n. egunera arte. Bilbao'ra jatsiko ebezala uste izan eta ara urreratu ziran Karlos'tarren gudariak eta dana eroan eban lenengo Justo eta Pastor santuen baseleizara eta gero Larra ko lekaide-etxera, Zorrotza'ra. Aldi orretan Santutegia guda-toki sendo eta Udaletxeagaz batera arerioentzat eraso-toki biurtu zan: Karlos'tarrak tirokatzen eban Santutegia eta egunero jotzen ebazan eleizea ta onen torrea kañoi-lerkaiak. Torretik erantzuten eban forudunen zizpak. Martiaren asieran kanpai nagusia beeratu bear izan zan jauskor egoalako. 14n. egunean karlostarrak

eleizeari sua emon nai izan eutsoen, baiña ez eban lortu. 19n. egunean eraso gogor bat izan zan baiña azpiratu al izan eban. 30n. egunean Artagan eta Kate-zar'eko kañoiak ez eban besterik egin Begoña'ko gudalariai lerkaiak jaurti baiño eta torreati kalte aundiak egin eutsoezan eta torregaiñeko arri landu

batzuk eleizearen gaiñera jausi eta eleiz-sabaiaren zati bat apurtu eban.

Ori izan zan Bilbao inguratzearen azkena. Orrillaren 1º egunean kendu eban esia Karlos'tarrak eta urrengo egunean sartu ziran urira Erkal-gudariak, Serrano ta Kontxa gudalburuak aurrean ebezala.

Orrillaren 3n. eguneko eguerdian uri-barruko gudari guztiak Aretza edo Arenalean batu ziran mezea egiteko eta onen ostean Serrano gudalburuak eta Torre-Kondeak (au Erkalaren Agintari Nagusia zan) gudarien aurrean garaipena ospatu eban.

Gudea amaitu zanean Begoña'ko Amaren Irudia Amorebieta'ko Larra'tik Begoña'ko bere lekura ekarri eban.

Barriro be, anai-arteko gudeak zapuztu eban Bizkaia. Erriko seme-alabak eta ekonomia eta antxiñatik arututako erakundeak zaurituta geratu ziran. Muñoa'ren gaiñean Begoñako eleizea agiri zan torrea apurtuta, dana zaurituta lez, dana zapuztuta. Orko arrietan agiri zan erriaren samintasuna.

OLAZAR'tar Martin'ek



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAIA'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

ARRIAGA TA BALZOLA'TAR JUAN KRISOSTOMO

ASIERAKO LABURPENA

Batetik bestera arakatuten ibilli ondoren, zertzelada batzuk aurkitu dodaz ARRIAGA ta BALZOLA' tar JUAN KRISOSTOMO'ri buruz zeozer idazteko.

Idazki labur onegaz gazte ereslari ospetsu onen izena goraldu apur bat gura neuke, bat baiño geiago dabillela ortik jakin barik nor zan eresi -arloan geure tarteko ARRIAGA ori.

Nun eta noiz jaio ta il zan? Ona emen erantzunak:

— Jaio, 1806'garreneko Urtarrillaren 27'an., Bilbao'ko Somera kalean.

Eriotza, 1826'garreneko Urtarrillaren 16'an Paris'en. Au da, amar egun bere 20 urteak bete baiño lenago; Montmartre'ko il-tokian obiratuia izan zan, baiña ez daki iñor zein lekutan.

Onegaitik aurtengo Urtarrillean bete dira bere jaiotza-ren urteurrena ta bardin bere eriotzarena.

Geure ARRIAGA'rekin, zertzelada batzuetan, batera dator beste ereslari ospetsua izandakoa: MOZART abizenekoa.

MOZART ori, 1756'ko. Urtarrillaren 27'an jaio zan, Arriaga baiño 50 urte lenago, Austria'ko Salzburgo urian.

Biok izen bardiña euken, "JUAN KRISOSTOMO", ta biok iñork ez dakien tokian obiratuak izan ziran. MOZART, 1791'ko. Gabonillaren 5'ean, Viena'ko urian il zan.

Geure ARRIAGA gazte ospetsuari buruz esan bear dogu bere abizen orrek "arri baten tokia" esan gura daulela; arri asko edo batzuk ba legoz, orduan ARRIETA izango zan abizena.

ARRIAGATARREN AZTARNAK

Geure lurralde osoan ARRIAGA abizenekoak ugari aurkitzen doguz eta guztienak edo ia guztiak gizon naiko ospetsuak izan ei ziran.

Aurkitu doguzanak, beste batzuen artean, oneixek aita-tu bear doguz:

Araban

Lezama'n (Amurrio'tik ur; bost kilometro inguran), Amurrio'n bertan eta baita Gasteiz'en.

Gipuzkoan

Alza urian Arriaga'ren sortetxea aurkitzen dala ta Alzariaga izena sortu eban.

Naparroan

Tafalla'n, Arriaga'ren Gastelu ta Jauregia eregia izan


zan. Beste bat Erronkari aranan, Uztarroz'en ain zuzen be, ta, baita Bidasoako Bera'n.

Bizkaian

Abadiño ta Berriz'en. Idazle batzuk ARRIAGA guztien sorteria Abadiño izan leitekela uste dabe.

Beste batzuk Errigoiti ta Lekeitio'n aurkitzen dira. Baiña azken oneik Araba'ko LEZAMA'tik datozela, "Labairu" edezlariak diño.

Geure lurraldetik kanpoan ARRIAGA abizena Erriogan eta Burgos'en aurkitzen da ta, banaka bat, Portugal'eraño eldu dala esaten dabe.



Errigoiti'ko Arriagatarren armarrria

SENDIA

Arriga'tar Juan Simón, geure Juan Krisostomo'ren aita, Errigoitian jaio zan. Gero Gernika'ra bizitzen joan zanen Balzola'tar Rosa ezagutu eban, aurrerantzean bere emaztea izango zana.

Juan Simon soiñulari izan zan, bere denporan Paris'eko Eres-Ikastolan egon zan soiñua ikasten. Gero organu-jotzaille lez ikusten dogu Gernika'n.

Arriga-Balzola senar emazteak aldi baten Gernika'n bizi ziran, baiña urte gitxi barru Bilbao'ra joan ziran eta erri onen "Somera" kalean, 51'an eta bere 4'gn. etxe oiñean kokatu ziran. Emen, len aitatu dan lez, 1806'gko. Urtarrillaren 27'an, curen semea "Juan Krisostomo" jaio zan.

Orain geure Juan Krisostomo ospetsuari buruz zeozer esatea bearrezkoa da ta auxe izan be.

Mutil lotsati la oldozkorra zala, baiña biotz-bera ta adeitsua be bai. "Los Caños" deritxon ibilbidetik bakar-tadean egurastuten zan eta baita Buia'ko oianetatik be. Naxa'ra be joaten zan, kaiara elduten ziran itxasontziak eta urriñetako lurraldetara urteten ziranak ikusteko. Bere aitak be itxasontzi bi erosi ebazan, oneik Prantzi -aldera joan-etorriak egiten ebezan, ekarten ebezan sal-erosketagaiak bere almagenean sartu ta gero, erosleen artean bananduteko. Olan curen bizimodua ataraten eben.

LENENGOKO URRATSAK

Mutil-koskor bat baiño ez zan eta igerten jakon soiñu-zaletasuna, baiña oindiño ez ekian zelan azaldu. Au ikusiaz bere aita ta Ramon Prudencio anaiak asi eben orretarako lenengo urratsak irakasten eta olan biurtu ziran Juan Krisostomo'ren lenengo irakasleak izaten. Lan onetan etxeko laguna zan bibolinlari batek be zeozer irakatsi eutson.

Geure ereslari bikaiñiak erraz bereganatu eban soiñuaren izkuntza ta amaika urtedun zala soiñuen bost-lerroetako orriak beteten ebazan burutik urteten jakozan eresgai berezkoak, errazak, barrukoa zintzotasuna erakusten ebenak; ori ikusiaz, gai orretan jakintsuak ziranak lur-jota geratzen ziran.

Benetan eresietan buru-argia zan eta amaika urtegez bere lenengo lana egin eban, "octeto" deritxon ekiñaldia "BAPEZ eta ASKO" (NADA y MUCHO) izenekoa; benetan, argi ikusten zan, eresi arloan oso bikaiña zala.

Geure soiñulariaren beste alderdia marrazlari, bikaiña izatea zan. Bere lana "NADA y MUCHO" len aldiz entzun zan aretoa marraztu eban. Areto orretan ango usaba ta bere alabea "pianoa" joten ikusten dira. Ondoren soiñulari asko erestaldeari adi-adi egozanak eta notiñiak aretoaren inguruan. Alboetan ezbaridiñetako idurien marrazkiak. Eta azkenekoan leio zabalak argi asko sartu eiten.

NADA y MUCHO

Ensayo octeto para OOF Nri-nal vin-...
 k' il 1, ... rC3
 ih(e'c y d SMO
 sIL'ra:CRISSTNT?MO il2 ~ik%I -C'1



"NADA y MUCHO"ri buruz, bere aitak auxe idatzi eban:


—NADA, gitxitxua dalako

—MUCHO, bere adiñetarako naiko ta lar.

Amabi urtekaz "Obertura" izeneko lan bat egin eban; au bibolin birako, biola ta soiñu-apal, txilibitu, Klarinete bi ta turuta-biur birako. Lan au Bilbao'ko "Filarmonika" alkarteari eskeiñi eutson.

Eta amairu urtedun zala "Los esclavos felices" (Menpeko zoriontsuak) izenekoa, zati bitako "opera". Au dana bere adimen garbiak esaten eutson lez, iñoren kutsadura artu barik; beraz askatasun osoz idatzi eban bere gogoak emoten eutson argitasun samur eta gizontasunez. Ikusten danez soiñu zintzoa, naste barik, irrikorra edo samurgarria, baiña bikaintasun osoz beteta, bere nortasunak erakutsita.

"LOS ESCLAVOS FELICES" "operea" len aldiz, 1820'an ikusi zan Bilbao'n, benetako ondore onaz; gure egille gazteak arrituta, antzokiaren tramankuluetatik begiz ikusi eban bere soiñuak zelako zarrastada egokia egiten eban guztien artean.



Apainketa Menpeko Zoriontsuentzat.

Amalau urtegez "Cuarteto" (Lauko?) Op. 17 idatzi eban. Jakintsuen artean irakasbiderako egintza korapillotsu lez gogoan artu leien lana da. Adin orretan ertilarien asierean egoan, baiña benetako argitasun eta egintza ikusgarriak ikusten dira. Bestetik ez dogu aitzu bear Bit-bao'tar ereslariak soiñu ori idatzi eban aldiaren ez egoan eres-maixurik idazlerik; Beethoven aundia bera be ez, naiz eta ereslari bikaiñenatarikoa izan. Lan onetan, Arriaga'ren bereiztasuna ta nortasuna ikusten dira.

Amabost urtedun zala "Obertura" bat idatzi eban, Op. 20'gn. zenbakia daroana; ereski barri au bezuzatzaz itzi euskun gaztetxuak baiña, onezkero, soiñulari aundia da eta, esaten dabenez, Arriaga'ren onenatariko lana. Bertan ikusten da ereskidetasunean ia-ia ezaupiderik euki barik.

Urta berean, geure ereslariak, erlejiñozko lan eder bat egin eban; "Stabat Mater" izenekoa. Azken-lan bi oneik Paris'era croan ebazan.

Juan Krisostomo'ren aitari adiskide guztiak eta soiñulari bat baiño geiagok, adorea emoten eutsoen bere semea Paris'eko "Eres-Ikastolara" bialdu egian.

ATZERRIRA

Azkenez eldu zan eguna ta 1822'garreneko Iraillaren 26'an zaldi-gurdi baten urten zan bere Bilbao'tik eta Paris'erako bideari jarraituz, uri aundi orretara eldu zan.

Eres-Ikastolara, joan zanean, ango Zuzendaria zan Cherubini italitar jaunari bere aurkezpena egin eutson,

ERESA

Bilbao'n egindako "Stabat Mater" erakutsiaz eta oneri (Cherubini jaunari) arrituta geratu ondoren, Arriaga'ri begira, oju bat urten jakon esanez: "Ederra benetan? Soiñua berbera zara zu!"


Gertaera au egizkoa dala erakusteko Cherubini jaunaren urteroko ekintzenetan, berberak idatzita itzi eban ori eta Paris'eko Eres-Ikastolan gordeta dago. Gertera bakana zalako, bere denporan egozan soiñu ta soiñularien artean, argituta itzi eban.

IKASLEAREN AURRERAPENAN; IKASLE BIKAIÑA

Eres-Ikastolan buru-belarri sartu zan eta gazte langille, arau-zale, aderez betea ta jakin-min bat lez agertzen jaku.

Denpora gitxi barruan bide luzea egin gura dau. Orduak eta orduak emoten dauz bere ikasketan eta lanean ia-ia indar barik geratu arte. Baiña bere indarketa guztiak saria ekarriko eutsoen; goizetik gaberako lortu ebazan aurrerapenak ugari ta garrantzitsuak ziralako, toki orren irakasleak beragaz esku arte gura eben ikasketak emoteko. Baillot'egaz biolineko ikasketak geitu ebazan eta Fetis'egaz ereskidetasun arloak; onetzaz ille gitxi barru ikaskizunak emon ondoren Fetis berberak esan eban: "Contrapunto" ta "Fuga" ikasteko ez eukan ostoporik, Juan Krisostomo'rentzat jostailu bat zala iruditzen zalako.

Beste batek esan eban, gazte onek, bere adimen eta erakutsi dauan ikasguraz jarraitu ezkeru, Europa'ko onenariko irakaslea izango da.



Juan Krisostomo'k egindako marrazki bat.

GORANTZA DOAN GAZTEA

Fetis irakasleak, ereskidetasuna irakasten eban eta birmaixu lez geure 18 urteko Arriga izentatu eban; onek trebetasunik aundienaz azalpenak emoten ebazalako. Denpora gitxi barru Eres-Ikastolaren irakasle garrantzitsuena izango zala, beste irakasle batzuen eritxia zan.

Paris'en iru "Cuarteto de arco" idatzi ebazan; orri bikaiñak, baliiodunak eta gain-gaiñeko egiñak. Soiñu txorta oneri buruz Fetis, bere irakasle ta adizkidea zanak

esan eban: Ezin asmatu "Cuarteto" oneik baiño jatorragorik, ez ederragorik eta ez garbi ta zuzenago idatzirik.

Guztiak bere aitari eskeiñi eutsozan, oneri ainbeste atsegin jakolako onelako soiñua, eta beti adoretu ebalako idazteko.

Lan onen "Kopia" bat Cherubini'ri emon eutson eskeintza txeratsu bataz. "Kopia" au Paris'eko Eres-Ikastolan gordeta dago.

1823'gko. Urtarrillaren 29'an, lau illabete baiño ez dira Arriaga Prantzian egoala ta azterketa batzuk egin ziran.

Irakasleak arrituta geratu ziran Arriaga gazteak egin ebazan iñakunakaz. "Contrapunto"ko iñarkunak ez dauke iñor bardindu leikezenik. Buruan euki bear da "Contrapunto"ren ikasketak zazpi astetan bakarrik euki ebazala.

Onegaitik Arriaga'k sari bat artu eban eta ori iru atalekoa zan: "Las bodas de Figaro", Mozart' en operean; "Las estaciones", Haydn'en eresia ta Cherubini'ren "Misa a tres voces"; azken au Cherubini berberak onelan eskeiñi eutson: "Irakaskide ta adiskide Juan Krisostomo Arriaga'ri". Onegaz benetako adizkideen arteko politasun igidura agertu eban.



Cherubini'ri egindako laukia.

1824'garrenean Eres-Ikastolan leiaketa bat egin zan "Armonia ta Contrapunto"ko bir irakasle izateko ta Arriaga'k lortu eban irakasle guztiak ao-batez esanda. Toki ori lortuten dau bere lana "Zortzi aotarako idatzitako Fuga"gaz; lan au sinismenaren zatia dan "Et Vitam Venturi Saeculi"; oneri buruz bai Cherubini'k ta bardin beste epailari guztiak emon eben eritxian, "lan bikaiña" lez artu eben.

Bere irakasle Fetis, eresleriaren ondore ona lortuta gero, auxe idatzi eban: "Contrapunto ta Fuga"ri buruz ez eukan ostoporik beretzat, jostailu bat iruditen jakezalako; izadiak adimen bi emon eutsozalako, oso gatxak aurkituteko ertilari baten bilduta ta oneik dira: asmamen-trebeta-

suna ta gaitasunik aundiena soiñuen zienziaren ostopo guztiak gaiñeraturteko.

Beste lan batzuk erakutsi eben ori: "Zortzi abotsetarako idatzitako Fuga" (gaur egun galduta dagoana); "Lau abotzetarako Meza" ta "Salve Regina".

Arriaga'k jarraitzen dau bere bizibidea, emoten dauzan ikasketakaz eta "Konpoziziñoaz" txandaka. Era batera buru-belarri sartzen da bere lanik onena idaztera, gai orretan jakintsuen eritxian esanaz "Kuartetoak"; lentxuago aitatu doguzan iru "Cuarteto de arco"ak.

Onez gain, Fetis, bere irakasleak esan eban: Geure egille gazteak bioliña jotzen eban guztietan, entzule guztiak adi-adi agoten zirala.

Kuartetean ostan, "Sinfonia" eran idaztea erabagi eban; berak esango eban "Orkesta aundiko Sinfonia". Sinfonia lan onetan geure ereslariak argiz betetu euskun, baita atsegin, samurtasunez eta poztasunez be. "Sinfonia" au bere lan bikain lez agertzen jaku, Kuartetean ondoan.

Onegaz Arriaga'k erakusten dausku ereskidetasuna eta erestiari buruz guztizko nausitasuna eukala.

Aldi aretan lan egin eban "Obertura" bateri buruz. Bere "Jopu zorientsuak" (Los Esclavos Felices) operari gaiñeztuteko izan zan.

Eten barik lan egin dau, baiña bere osasuna gitxituten doala ikusten da. Azkenez "Obertura" ori amaituten dau ta "Pastoral Obertura" izena emongo dautso.

Eta lan osoan ikusten da itzeleko nausitasuna eukala orkestan erabilten diran ereskin guztietan.

1825'garreneko urtean, bere bizitzaren azkena, erlejiñozko lan bi idazten dauz. Ona emen: "AUDI BENIGNE" Garizumarako idatzita amazortzi urtedun zala. Erlejiñozko eresi bat da edertasun eta paketasun aundikoa, jakintsuen eritxian.

Bilbao'n asitako bideari jarraituz Arriaga'k aspertu barik lan egin dau, bere aitari, agurtu ebanean, agindu eutson eten barik idatziko ebalata.

Beste lana "O SALUTARIS" da. Kuartetorako idatzi eban. Gero, aldaketa bat egin zan bostekorako; gaiñeztu eban lenengo ta bigarren "Tenorraz" baita abots lodidunekaz; onegaitik eginkizun au lan bakan lez agertzen da, bere ospe ta aunditasunagaitik. "O SALUTARIS" erlejiñoari buruzko Arriaga'ren lanik onena izan leiteke.

Jarraian prantzitar lan ERROMANZAK idatzi ebazan; onekaz Arriaga Romantizismorantza doa.

Esandakoaz esan lei geure soiñulariak zubi bat lez égiten dauala Romantizismo dalakoan eta Arriaga'ren osteko jarraitzaillen artean.

"Tancredi sei tu" ta "Tancredi, mio caro ben" biotzeragille edertasunekoak dira.

"AGAR" bere azken lanagaz bost lerroko orrietan antzerkitasun itzela itzi euskun Arriaga'k.

AMAIERA

Egunetik egunera aulduten doa, baiña, adoretu zala-ko, artuta eukan bideari jarraitzeko alegiñak egiten ebazan, naiz eta sugarrak, noizean bein, ler eginda itzi ta bost lerroko ingien ganean erdi lotan geratzen zan. Itxartutean, arnas apur bat artu ondoren, bere lanari jarraitzen eutson,

eguneroko ardurea artuta. Asko idatziko chala, aitari emoniko itza bete gura eben.

Lotaldi gitxi egin ondoren, Eres-Ikastolara joian bere eginkizunak jarraitzeko. Bidean geldiune batzuk egiten ebazan arnasa artzeko.

Bidez-bide joiala ez zan ezegaz konturatuten; oldozmen bakar bat baiño ez eukan: SOINUA!

Eres-Ikastolan bere ereskietan lan egiten eban eta baita, bir-irakasle laguntzaille lez bere gain eukazan ikaskizunakaz arduratuta egoanaz.

Ikaskizunetara elduta guztia aiztuten jaku, baita bere nekealdia be. Egun osoa Eres-Ikastolan emoten eban, Fetis, bere irakasleak ikaskizunetarako esaten eutsona ta, gañera, bere lan barrietan arduratuta.

Egun-aldi osoan lan egiten, nekatuta, bere etxera biur-tuten zan, gaba bere gain egoala. Gañera bere geixoaz arduratuta, egunetik egunera astunagokoa zala ikusten ebalako.

Gauza bakar bat iminten eban bere nortasunean! Idazten jarri ta... KITO! Onelan bere biotza argi ta bizi biur-tuten zan.

Baiña gero, gaba etorten jakonenan, beronen estalki bal-tzaz dana bilduten eban. Eta azkenez, betirako... joan zan!

Onen eriotzari buruz, auxe daukagu:

Paris'eko Gaitasun sendakintzaren osagilleren argitasuna onelan diñoana: Zalantza barik makaltasun min-zar onek iru illabetetan amaiera ekarten dautsona bularreko gaixo azkarra da; bapateko gaitz epela da.

Eriotzaren barria emoteko onelan diño: milla zortzi-reun eta ogei ta sei garreneko Urtarrillaren amazpian, Soiñu Errealaren Eres-Ikastolako kidea, ogei urteko Juan Krisostomo de Arriaga'ren lorketa egizatzen da.

De Arriaga, Juan'en gorpua, ogei urce adiñekoa, 1826'gko. Urtarrillaren 17'an illobiratua izan zan, bigarren lurraldeko arduradunpean eta duaneko illobian kokatua. Au Montmartre'ko il-tokian egin zan. Atan da guztiz be, oindiño gaur-egun, ez daki iñork zein tokitan illobituta dagoan.

Olan amaitu zan, ereslari aundienetarikoen bat izango zanaren, bizitza. Noraiño elduko zan ogei edo ogetamar urte geiago bizi al izango ba eban?... Batek ba-daki!

Arriaga'ri buruz esan bear da, bere aitak "300" franco illero bialduten eutsozala, bere bizitza nasai eroateko. Ori bakarrik zan artuten ebana, beste iñoren laguntasun barik eta ikaste-saririk bez, iñungo Erakundetik ez ebalako artu iñoiz.



Paris'en Montmartre'ko il-tokio.

ERESA

OROIKARRIA

Arriaga-ren goratzarre ta oroipenean. 1933'gko. Dagonillaren 13'an, Bilbao'ko Udalak, soñulari onen oroipen iraunkorrari eskeñiteko irudi bat jarri eban, Bilbao'ko baratz aundian. Irudi ori Erakustokitik apur bat alboratuta ta atzeratuta dago, ezker alderantza begitatuta.

Oroikarriaren irudiak idazkun bakarra daroa: **ARRIAGA 1806-1826.**

Idatzitakoaz amaitutzat itziten da gure bilbaotar Arriaga ta Balzola'tar Juan Krisostomo ereslari bikaiñenetari-koaren bizitza laburra, baiña soñuetan ugaria.

ARRIAGA ANTZOKIA

Orain, lan oneri amaierera emoteko, iru-lau gauzatxo esan bear dira Bilbao'ko "ARRIAGA" antzokiari buruz.

Lenengo ta bein, antzoki ori ez zan egin **ARRIAGA** ereslari ospetsuaren izenari eutsi ta goralduteko. Antzoki ori egitea erabagi zan, Bilbao'ko uriak onelako toki ederra bear ebalako, antzerketak egiteko.

Bilbao'ko lenengo antzokia 1799'gko. urtetik datorrela esaten dabe ta "Ronda" kalean egiña zala. Urte gitxi irauan eban, 1816'an suak artu ebalako.

Urrengo urtean, aldirako antzoki bat "Arenal" ("Ondartza") tokian egin zan, baiña 1827' desegindu egin zan.

1833'an erriaren lur baten, Arenalean, antzoki bat aupatuteko eskeñi zan eta Udalak, dirudun talde gizon batzuei utzi eutsen antzoki ori egitea ta 1834'an zabaldu zan; au Uriko "Karlatarren etsidurearen" aurreko urtean izan zan. 1885/86'an amaitu zan eta lurreratuteko lanak asi ziran. Antzoki onek ez eban iñoiz izenik euki, jaubetza uriarena zalako ta "Bilbao'ko Antzokia" edo "Uriaren Antzokia" lez ezagutzen zan.

1885'eko Garizuman eta urrengo urtean erestaldi batzuk ospatu ziran eta onez gain "Cuartetos de Arriaga" ezagutu-azi ziran; onegaitik antzokia lurreratu baiño lenago bere barruan entzun ziran bilbaotar ereslariaren atsegingarrizko "konpasak" entzun ziralako, antzoki barriari "Arriaga" izena emon jakon.

Bilbao'ko Antzoki Barriaren aurrekaldean 1889'gko. urtea zala egintzaren amaierera lez agertzen da, baiña zabalkundea 1890'ean izan zan. Egintzaren Alkarteak "92" urteetan baliatuteko baimena eukan eta gero, Udala jaubetuko zan an egozan tresna guztiakaz.

Aurretik, 1888'gko. Urtarrillaren 26'an, Arriaga'tar Juan Krisostomo, bilbaotar ereslariaren aurregunean, soñu-zale batzuk Bilbao'ko Udalari erabaki-gai bat erakutsi eban **ARRIAGA**'ren izena eroiela bere jaiot-erri tokiren baten. Eta antzoki barria egiten zan aurrekaldean geratzen zan etxe-leku eder bat eta erabagi zan toki orre-ri "ARRIAGA Maixuaren enparantza" (Plaza del Maestro Arriaga) izena emotea.

Antzokia amaitu ondoren bere izen "ofiziala" "Nuevo Teatro de Bilbao" izan zan. Baiña biztanleek laster asi ziran esaten "Arriaga enparantzako Antzokia" eta gero-txuago "Arriaga Antzokia" lez laburtuta.

1890'gko. Loraillaren 15'ean zabalkundea egin zan "La Gioconda" opereaz. Ondoren beste operak be entzuten ziran eta euren artean: "Lohengrin"; "Hugonoteak";

"La Africana" ta ab. Aldi orretan "ARRIAGA Antzokia" lez ezagutzen zan.

1914'gko. Gabonillaren 22'an ez usteen, su-aundi bat sortu zan eta antzoki osoa esan lei errauts biurtu zala, alde guztietatik erre egin zalako. Tamalgarria izan zan, Antzokiaren agiri-pilloa desegindu zalako, euren artean: ertilari askoen argazkiak galdu ziralako ta bardin "autografoak"; "egitamuak", "eres-itzak" eta baita su-aroen itun agiriak.



1919'gko. Bagillaren 5'ean barriro zabaldu zan "Arriaga Antzoki Barria". Antzoki onek zabaltasun aundiagoa eukan eta baita egokitasun eta apaindura be, onez gain ziurtasun aldetik be obeto egoan. Len antzerkizun onetarako, Verdi'ren "Don Carlo" opereara jarri zan.

1978'an Udalak barriro artu eban Arriaga Antzokiaren jaubetza.

1980'an egoera txarrean egoala ta eskatzen eban "ormigoizko" egitura barriak eta gogorragoak bear ebazala. Onegaitik egitamu oso bat egin bear izan zan aukera onean dana izteko.

Ori dana gitxi ba zan, 1983'gko uriolak egoera guztiz txarrean itzi eban Antzokia, batez ere bekaldeak. Barriro konpondu zanean itzelezko zurubi bat jarria zan. Eta lenengo mailburuan soin-enbor bat jarri eban geure bilbaotar soñulari ta ereslari ospetsua zan "Arriaga'tar Juan Krisostomo'rena Antzokiari izena damotsona.



Argitasun labor onegaz antzoki onen eskeñi-aldi batzuk daukaguz, antzoki onen gora-beerak zelakoak izan diran jakiteko.

EGILLEOR' tar JON

BAKIO

BERBAURREA

PORTUONDO baserria bota egin dabe. Joan egin jaku betiko. Beragaz batera eundazak urteko erroa eta gomutarra. Ondakinak, bata bestearen ganean, baino ez dira ikusten orain bertan. Laster, aurrerabideari leku egin ez, ango lurretan eregi egingo dabe, zeozer eregi edo egin be.

Ondakinoatik, baina, zer edo a onik nonora eroan aal izan dabe: arrizko gazunaskea, arri landuren batzuk... Baten bat konturatu da-eta errion euron balioaz.

IBARRA be joan egin jakun, aurrerabideari leku egiteko, antza.

Apurka-apurka, erriko erroak ostenduz joakuz. Erroak ez eze, eurokaz batera doan gomuta istorikoa be galduten asi gara.

Baina etorkizun ohea euki aal izateko, erroak sendotu bearko litzakez, eurok erauzi edo atara baino. Etorkizuna sentimendua be bada. Aurrerabidea ez da bakarrik teknokraten erispide merkantilisten bidez lortuten. Gauza bien denduan edo bardintzean dago kakoa.

MERKATARIZA ETA TURISMOA SUSTATU-TEKO PLANA

Bakio erri turistiko garrantzitsu bihurtzea eta merkataritza errian bultzatuteko ainbat neurri artutea dira dalako planaren elburu nagusiak.

Plana Bakioko Udalak aurkeztu eban. Bakiok daukan azpiegiturak erabilteko plana egingo dabe, azpiegitura geiago egiteko asmoa dagoan arren be.

Kanpora begira, Bakio turistikoaren irudia saldu gura dabe. Bakion denda geiago zabaldu eta arlo ori bultzatuteko neurriak artutea, au da, otelen eta jantokien eskaintza zabaldu eta obaturtea, barbarako, izango litzakez merkataritzeari jagokozan egiteko ekintzak.

Urigintzeagaz lotutako bearrak be egingo litzakez: errira sartuteko zein ibilteko bideak konpondutea, aparkaleku geiago imintea, bidegorriak egitea... Oneezaz, ganera, aretza inguruko alderdia be egokitutea da Udalaren asmoa.

IKASTAROA: NEKAZARITZA DIBERTSIFIKAZINOA

Kontserbak zein marmeladak egiteko ikastaroa izan genduan errian zemendiaren 13tik 17ra, asteleenetik bari-kura bitartean.

An ikasleek barazki-kontserbak eta marmeladak zelan egin ikasi ez eze, eurok egitek praktikak be egin ebezan.

Ikastaroa amaituteko, JAKION enpresa (Gipuzkoan) eta Arkauteko Nekazaritza Eskolea (Arabán) ikusten joateko osteratxua be egin eben. JATA-ONDO alkarte eta

Bakioko Udalak izan dira ikastaroaren eratzailleak.

EUSKAL PRESOEN ALDE

Jaien asieran, dagonilaren 28an, arratsaldeko zazpiretan, Bentako enparantzan egitekoa zan Euskal espetxeratuak Euskalerrira ekartearen aldeko kale-batzera joateko dei egin eutseen erritarrei udaleko indar politiko guztiek.

Euskalerrian bizi dogun arazo politikoa konpontzeko aurrerapausoa izango litzakela jakin eragin eben. Euskal presoek eskubideak bete!

BIZKAIBUS BAT GITXIAGO

Dagonilaren 14an, gaueko 10.30ak inguru, iru-lau lagunek, burua estalduta eta txoferrari autobusetik urten eragin ta gero, BIZKAIBUS zerbitzuko autobusari su emon eutsoen Bentako aparkalekuan.

Autobusa eta aren ingurua be gutiz kilokiduta lotu ziran.

Andik ur ebilzan oinezkoengan bildur eta ikarea ziran egiri-agirian.

PORTUONDO

Apurka-apurka bajoakuz joan erriko etxerik esangurasuenak galduten. Orretariko azkena PORTUONDO izan da. Ezin aitatu barik itzi lei etxe orrek aretza inguruan euki izan dauan leba andia.

Etxe orrek lorratz sakona itzi dau erri onetako istorian.

A galdukeran, jaubeek ez eze, erritar guztiek be galdudgu gure izakerearen, Erri izakerearen, zatitxu bat. Portuondo il da, goro PORTUONDO!

ZER EGIN BEAR DOGU TXAKURRAGAZ?

Lege barriak dirala-eta, Bakioko Udalak urrengook ekarri deuskuz gogora:

1.- Txakurra ugal barik eroatea edota legeak dinona ez betetea, lege kanpokotzat artu eta zigortu egingo da.

2.- Txakur korotzak batu aal izateko, beti paper zati bat eroan bearko dau aldean jaubeak.

Eta ganera:

A.- IDENTIFIKAZINOA

- 1.- Txipa imini.
- 2.- Erroldan sartu.
- 3.- Osasun txantela.

B.- ZELAN EUKI BEAR DOGUZ?

- 1.- Ondo janaritura.
- 2.- Urtean bein osasun azterketea egin.
- 3.- Erantzukizun zibileko aseguruia egin.
- 4.- Toki publikoetan ugalaz eutsi.

ALBISTEAK

D.- IZTEA EDO SALTZEA

- 1.- Itzi edo saldu ezkeru, udala jakitun imini.
- 2.- Bearrezkoak bete (Ikusi A).

E.- TXAKUR ARRISKUTSUAK

- 1.- Kontuz ibili.
- 2.- Txakur tokitik inez ez egiteko neurriak artu.
- 3.- Ugal luzagarriak galazota dagoz.
- 4.- Toki publikoetan txakurra beti musturrekoa jantzi-ta euki.
- 5.- Txakurra beti identifikazino plakea jantzita euki.

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA

Aurtengo irakurketa leiaketea arrakastatsua izan da. Betiko lez, irakurlerik txikienek euren marrazkiak itzi dabez liburutegia apaintzako. Leengo urteakaz konparatu ezkeru, aurtan mutil geiago egon da eskuartzaileen artean.

Zergaitik izan ete da? Sariagaitik, bearbada? Skate egiteko Santa Cruz Tabla ederra. Ona emen aurtengo irabazlea: Igor Zuriarrain Mendiguren beraren sariagaz.

Liburuak dirala-eta, bertsolari bi ekarri doguz txokorra:

PAUSOA NOIZ LUZATU: Andoni EGAÑA

1930eko abenduan Errepublikak aldeko matxinadan esku artu eban frai Kandidok. 1960an Zarauzko Eskolako sortzaile eta zuzendaria da. Francok Eskoleari sari bat emongo deutso, frai Kandidok be diktadorearentzako opari susmagarri bat badauka.

BERANDU DA GELDITZEKO: Unai ITURRIAGA

Bilboko alde zaarrean bizi dan gazte baten bizitzearen zati bat kontatzen dau Iturriagak. Mikelek, gure protagonistak, kazetaritza ikasi dau baina ez da "Beraren Nagusiaren Abotsa" izango, musika talde baten baxujolea da, lagun baten etxean bizi da ezer ordaindu barik...

KONPOSTELARA BIDEAK EUSKALERRIAN BARRENA: Jose Luis ORELLA

Ibilbidearen zeaztasunak ezagutuko doguz. Testuaz ganera, mapa eta irudi lagungarri eta interesgarri batzuk be aurkitu geinkez.

Liburu oneek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazua. Erdu gurera!

KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

Joan dan urriaren Sean Etxeko ikastaroak asi ziran. Aurtan be, Aerobida, Gimnasia, Marrazkigintza, Esku Lanak eta Yogako taldeak osatu egin dira.

Saloi Dantzetako ikastaroa atzeratu bear izan dogu bear dan besteko lagun kopurua bete arte. Au dala eta, saloi dantzetan asteko animatuta zagozenok izena emon zeinkee Kultur Etxean.

Aurkeztu dogun ikastaro barri Argazkigintzako izan da. Kurtso au, asteleenetan izan da, arratsaldeko

7:00etatik 9:00etara. Eta bertan oinarrizko edukiak landu dira, ikasleek argazki makinea aalik eta ondoen erabili daien.

Datorren urteari begira, Etxeko Konponketak izeneko ikastaroa prestetan gabilz. Ikastaro onetan ikusiko diran gaiak oneexek izango dira:

- Elezktrizitatea (esate baterako, entxufe barri zelan imini, konexinoa zelan egin, lanparea zelan aldatu...)
- Igeltsaritzea (baldosak, zementua, kolea...)
- Iturgintza (txorroten arazoak, garbigailua...)
- Arotzeria (ateak, krisketak, apalak...)
- Pintoretza (pintura motak, teknikak...)
- Bernizatzea (egurra, motak, tindatzea...)

Eduki guztiak oinarrizkoak izango dirla esan bearra dago, edonork etxean aurrera eroateko moduko konponketak landuko dirala. Ikastaro onetarako izena emoteko epea abenduan asi da.

URRENGO ERAKUSKETAK

- Urriaren 9tik 26ra arte, ZAZO ELKARTEaren lan batzuk euki doguz, euretariko geienak umeek egindakoak.

- Zemendiaren 13tik 29ra arte, EDUARDO LOPEZen irudiak ikusi aal izan doguz.

- Abenduaren letik 15era arte, ERRAMUN LANDAREN irudiak.

ARGAZKI LEIAKETEAK

Aurtengo argazki leiaketan irabazleak izan diranak urrengo saridun oneen dira:

- Leenegoa, Juan Manuel Txarroalde, "Ikuspegi I" izeneko argazkiagaz.
- Bigarrena, Maritxu Garrido, "Argia II" lanagaitik.
- Iruigarrena, Gloria Larrea, "Peña Roja. Bajamar I" argazkiagaitik.

GABONETAKO KULTURA EGITARAUA

Bakioko Kultur Etxeak eta Turismo Bulegoak eratuta, oneen gauzok euki genduzan Gabonetan gure errian:

Zemendiaren 30etik abenduaren 15era: Erramun Landaren erakusketea Kultur Etxean.

Abenduaren 1ean: "Magic Leiaketea" Kultur Etxean.

Abenduaren 22an: Antzezlanak Kultur Etxean, "Izarretako Bitakora" Maskarada taldearen eskutik.

Abenduaren 23, 27 eta 30ean: "Bertoko Surfaren Istoria" Kultur Etxean, Bakioko Surf Taldeak eratuta.

Abenduaren 24an: Olientzero, Amaieran, Ipuin Leiaketako sariak pelotalekuan.

Abenduaren 26, 27 eta 28an: 7 urterik 10 urtera bitarteko umeentzako Marrazki Ikastaroa Kultur Etxean.

Abenduaren 30ean: TELMAH taldearen eskutik txikientzako emonaldia.

Urtarrilaren 3 eta 4an: 5 urtetik 7 urtera bitarteko umeentzako "Olgetan tailerrak" Kultur Etxean.

Urtarrilaren Sean: "Saguzarrak" diapo-emonaldia Kultur Etxean. Ibon Canciok eratuta.

Urtarrilaren 13 eta 14an: Formigalen eskietako joan-etorria. Turismo Bulegoak eratuta.

Liburutegian: Dinosaurioen inguruko gaiak egon ziran.

ANDRA MARI EGUNA

Andra Mari eguneko izarra ITXAS-ALDE dantza taldea izan da aspaldion.

Goizean, eleiza aurreko dantzaldia erriko dantzaririk gazteenek egiten badabe be, ilundiko dantzaldian la talde osoak artuten dau esku.

Urterik urtera dantzaldi ori ikusgarriagoa izan da. Esan bear da, erria sano pozik dagoala gure erriko gazteek egiten daben aaleginagaz. Jarraitu beie orretan urte askotan!

NEKAZARITZA XV. AZOKEA

Amabost urte joan cura Nekazaritza Azokea gure errian egiten asi zanetik.

Urtero-urtero, baten be utsik egin barik, eratuten izan da azokea.

Urterik urtera geroago eta onarpen andiagoa irabazten joan da, bai erritarren artean, bai erbestetarren artean be.

Urterik urtera erakusle-saltszaileen eskuartzea ez da pitin bape txikitu, andiago egin ez bada, beintzat, eutsi egin deutso lortutakoari.

Gure lurraren emoitzarik eder eta gozoenak ikusi eta erosi aal izan genduzan joan zan dagonilaren 27an, berbarako: ortuariak, igaliak, lorak, ezitia gaztaia, ogia, gozopilak... eta danon errege, txakolina bera, jakina! Jendea be, baztarrak etorri ziran, ikusten ez eze, erosten be.

Portuondoko makaldian, egun atan, batek baino geiagok ekarritako guzti-guztia saldu eban sasoia baino arinago.

Dagoan lekua dagoala, erakusle-saltzaile batzuei ez etorteko esan bear izan jaken.

Egun orretarako beren-beregi eratuta egoan txakolin leiaketan, zurian, leenengo saria Zamudioko Oletxerantzako izan zan, gorrian, ostera, Lezamako Agirrerentzako izan zan saria eta baltzean, Bakioko Zabalarentzako.

Zorion beroa SUSTRAI BILA taldekoei. Izan be, eurak izan dira-eta urteotan orren guztiorren eratzaileak.

BERBALAPIKOA

erbestetar= beste erri batekoa

eskuartze= partearitze

emoitza= produktu

igali= fruta

gozopil= pastel

makaldi= Portuondoko zugatzak

beren-beregi= berariaz.

SAN JOAN DOLOZAK - 2000

Aurtongo erriko jaiak aste bitartean izan doguz. Ez dra, bearbada, orregaitik jendetsu-jendetsuak izan, ekitaldi gitxi batzuetan izan bada be.

Umeak jaietan parra-parra ibili izan arfen, gazteak, barriz, askoz be gitxiago ibili dira, taberna edo txosna giroa gurago izaten dabe-eta, azkenengo urteotan ikusten danetik, beintzat. Eta alantxe izan da aurton be.

Egunez egin izan diran ekitaldiak jendetsuagoak izan dira, batzaz beste, gauzez egin izan diranak baino. Alan bada, gazte gitxi ibili dira jaietan, eta orreetan geienak gauzez, baina.

Jaietan zear aro txarrik euki ez dogun ezkerero, batez be goizetan, aretzeak lagun asko eroaten izan dau berarenera.

Jaiak eratuten dabilzanek orreek gauzaorrek kontuan euki bearko leukeez urrengo urteko jaiak eratuten asi orduko.

Alan ta be, jaiak beti jai jaietan ibili gura dauanarentzako. Orretan ibilitakoen artean ez dira gitxi izan ondo baino obeto jaietan pasatu dabenak. Gora zuek!

SAN MIGEL EGUNA 2000

Aurtengo San Migel eguna, gure eritxian, sano makal lotu zan, jaiaren inguruko ekitaldien ikuspegitik begiratu-ta.

Urterik urtera motelago.

Txosnak eurak eta euron zaratea kenduta, ez zan egon bape geiago Zumetzagan.

Izan be, egun ori lagunen alkargune biurtu da, an alkarragaz bazkaria egin eta jan, eta ez dago ori bape txarto.

Baina zeozer geiago bear da an.

Zeozer eratu bearko leukee larrauritarrek egun ori zeozelan jantzi eta bizkortuteko.

Osterantzean, txosnen inguruko kontsumokerian ibiliko gara beti, aurrera eta atzera, gure buruak askatu ezinik.

Polita, beste aldetik, Tabernaldeko erromerri. Lagun gitxi dantzan, baina. Tabernak, ostera, mukurugino beteta egon ziran, baita Moilapuntako tabernak be. Jaiak ondo pasetako baino, diru egiteko makinak dirala geiago emoten dau. Ori da guk gura doguna? Baietz, emoten dau.

EUSKEREAREN JAI 2000

Euskerearen jai izan genduan joandako urriarren 28an. Gaiteroek egindako kalerik kalekoaren deia errian zear zabaldu eta gero, eguerdiko ordu batetan asi ziran erriko pelotalekuan eguneko ekitaldiak.

Eskolako umeen abesti eta dantzen ostean, ITXASALDEkoen dantzei egin jaken lekua. Jarraian, Saralegi arri-jasotzaile leitzarraren erakustaldi ederra eta beraren erriko azkolari neska biren arteko leia izan genduzan.

Erri bazkari ezin gozoagoa atondo eta zerbitu euskuen erriko andre. Aimaituteto Tapia eta Leturiaren erromeria, oneta Patxi Perez Iparraldeko dantza maisuak ederto be ederto lagunduta. Euskerearen onerako izan daiala!

GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (V): AGIRITEGIA

Gernika'ko Batzar-Etxean zaintzen da "Bizkaia Jaunerriko Agiritegi Nagusia".

1366n. urtean asten da eta gaur arte jarraitzen dau. Balio berezia dauke XV eta XIX gizaldietako agiriak.

EDESTIA

Antxiñako aldietan kutxa aundi baten egozan eta kaxa edo kutxa au zin-eleiza zarrean zaintzen zan.

1622n. urteko batzar baten erabagi eben zurezko kutxa aundi bi egiteko eta orreitan sartu agiriak. Kutxa bi oneik be zin-eleizan geratu ziran.

1684n. urtean beste erabagi au artu zan: Eleizearen ondoan sakristi bat egin eta au izan daitela Jaunerriko Agiritegia. 1696'an amaitu zan lana eta 1.500 errial ordaindu zan, gaiñera burdiñezko ateak eta beste gauza batzuk.

1826n. urtean Aldundi nagusiak, eleizearen ondoan beste agiri-toki bat egitea erabagi eban, Etxebarri'tar Antonio'ren egitasmoa betetuz eta lenengo arriaren azpian sartu zan orretarako errege-agindua, aldaki bat, eta urte aretako txanpon batzuk.

Agiri-toki onek be-maillea ta goi-maillea daukaz eta goi-maillan balkoi aundiak aurrean burdiñezko eskudela dabela eta puntu-erdiko leioak. Museo'rantza dagoan ormeak zazpi arku daukaz eta mailla bietarako sarrera -ate bi. Kanpoko ormea, egoalderantza, arri landuzkoa da eta gaur zuzendaritza ta zaingo-tokiak dagozan lekurantza be arri landuak dira. Begirategi edo balkoietan egoalderantz puntu-erdiko arkuak eta leioak dagoz.

1956n. urtean agiritoki au barriztatu egin da eta eskaplot bi ezarri dira kaobazkoak.

GOI-AGIRITOKIA

Agiri-moltzoak bi dira: Goikoa ta beekoa. Goikoan dagozan kaobazko eskaplotak 19.664 erreal ordaindu ziran. Goi-errezel bat dauka eta onen apaingarri dira Bizkai'ko Ikurdiak, gudan irabazitako oroigailuak eta idiburuak. Orduan ontzak artzen ziran apaingarriak dira. Age biren gaiñean dago errezela ageak oiñarri aundiakaz eta erdiraiño dira kanaldunak. Idazki bat: "Bizkai'ko Lege Zarra" zidarrezko izkiz, Jaunerriaren ikurdia eta goiko aurea biribil-erdizkoa. Au da Agiri-toki onetako lekuri gurena eta emen zaintzen da 1526'koa dan Bizkai'ko Lege Zarra eta beste agiri batzuk.

Goi-Agiritekian edesti-agiriak dagoz: Erregeen eskutitzak, Batzar Nagusiak, gudak, itxas-lanak, erritarren arteko gudak (Karlatarren alderdiko agiritegirik onenetariko), jaun-gurtzarako eta abadeentzat zergak, fogerak,

zenbakiak, bideak, izkilluak, Durango-aldeko barriak, sendien aurretikoak eta abar.

BE-AGIRITOKIA

Erdi-lurpeko tokia da eta agiriak euren lekuetan ipinteko aretoak dagoz bertan, burdiñezko liburu-lekuak eta oneitan Bizkai-maillako agiriak eta errietakoak. Au izan zan aldi baten Lumo'ko Udaletxea.

LEGE ZARRA (FORUAK)

Aztertu daigun era berezian forua edo Lege Zarra.

Gure Jaunerriak 1877n. urtera arte bere Lege Zarra izan dau. Lege Zarra edo forua ez dira besterik antxiñako legeak, usadioak, ekanduak, aske-aginduak, eta lege bereziak baiño eta oneik beti izan dira Jaunen aldetik (erregeak izan naiz izan ez) onartuak eta itzalez begiratuak.

Bizkai'ko Jauna izateko lege oneri eutsi eta barau zaintzeko zin egin bear zan. Gaztela'ko Erregeak beti egiten eben zin au Bilbao'n, eta Larrabetzu'n dan Goiko Eleizako San Emeterio ta Zeledonio'n, Bermeo'ko Eupe-me Deunan eta Gernika'ko Andra Mari Zarraren eleizan. Azkenengo au izaten zan ziñik aunditsuen.

Lege Zar oneik lur laurako edo eleiz-ateetarako ziran balioko eta urietan eta Orduña uri nagusian Erregelegeak eta eurak irasi ziranean ezarritako legeak ziran balioko.

Asieran Lege Zar au buruz eta berbaz jakiten zan baiña idatzi be egin ziran azkenean, 1452'ean foru zarra eta 1526'ean foru barria. Foru barriaren idazleak Martin Saez de Naja'ren etxean batu ziran, Bilbao'tik kanpoan eta arin egin eben lana. Foru barri au Jaunerrian onartu eben eta gero Balladolid'en egoan Gaztela'ko Kontzeilluan eta Karlos lenengoak emon eban irarteko baimena. 1528'ean amaitu zan dana.

Batzar-etxeko agiritegian dago 1526n. urteko foruaren esku-idatzia, ale bakarra ta balio aundikoa, I Karlos Erregeak izenpetua, irarteko baimenagaz.

Zori txarrez, Lege Zar edo Foru guzti oneik beti idatzi izan dira erderaz. Oraintzu (1981'ean) Arabarra izan arren Bizkai'ko euskerea egiten dauan eta Oleta'ko Semea dan Puxana ta Agirregabiria'tar Pedro'k euskeratu dau azkenengo Foru-Liburu au. Eskerrik beroena zor dau tsagu abade on-zintzo oneri eta laguntzaille ona izan dauan Jose Estornes-Lasa'ri. Bizkai'tar guztiak irakurri bear leukee liburu aundi eta eder du.

OLAZAR'tar Martin'ek

ALDEKOA (BAKIO)

ALDEKOA gaubekatarren euren baserri aren ondoan eregitako baserria da, ortik jatorko izena: aldekoa, albokoa, ondokoa. Gaubekatarrena izan zan. Izan be, 1709. urtean beintzat, Marina Gaubekakoarena zan, Joan Abarroa errentadore ebala.

Urte batzuk garrenean, Bentura Uriarte eta Unibasoko Anna Mariarena izan zan. Unibaso sendiak Gaubekakoagaz loturaren bat eukanez, ezkon-sariaren inguruan zeozer zala-eta, jaubez aldatu eben baserria.

Iru seme-alaba euki eezan, danak San Pelaion jaiok eta ez ALDEKOA'n. Nikolasek, semerik zaarrenak, artu eban ALDEKOA oinordetzan ta Larrauriko neska bategaz ezkondu zan 1787. urtean. Gurasoakaz bizi ziran baserrian bertan, oneek il artean. ALDEKOA'ko "obian" lurperatu ebezan.

Bikotearen seme batek, Juan Bautistak, artu eban baserria oinordetzan. A be Larrauriko neskatila bategaz ezkondu zan, 1819. uretan, Larraurin bertan. Alaba bi eukiteaz ganera. Juan Antonio, seme bakarra jaiok jaken 1822. urtean.

Azken onen eskuetan lotuko zan geroago ALDEKOA baserria. Juan Antonio 34 urteagaz ezkondu zan 1856. urtean beraren bigarren leengusina bategaz, Maria Juana Uriarte Iturain izenekoagaz, atan be.

Uriartetarrak Gaztelugatxeko Donieneren deboto bizi-bizikiak ziran. Euren seme-alabak jaiok ziran egunetan eurotan bateatu ebezan Gaztelugatxen. Alan egin eben. bada, 1863. urtean Frantzizko Uriarte Uriarte "Pantxo" semeagaz. Ez ekien izenpetzea idazten be, ederaz bape ez eben ulertuten. Pantxo eta beste bost seme-alaba euki ebezan areek. Seme-alaba guztiotatik iruk baino ez ehe umezaroa igaro.

Pantxok 14 urteagaz egin eban alde Kubara, beste askok lez. Euskalerrian gauzak ez ebilzan ondo eta. Danetariko mutil lez asi eta amabigarren urtean gudarostean amaitu. Kuban gauzak be txarragotu ziranean, Bakiora etorri zan atzer. 1900. urtearen asikera Bakion egoala, Bermeoko esbribauak ALDEKOA baserria emon eutson beraren gurasoen izenean. Baserria ez eze, ainbat larea etasolo emon be, dana 12.500 pezetan baloratuta. Pantxok etxea barriztatu eban bertan biziten lotuteko asmoagaz.

Pantxo, Kuban egoala, Antoni Pia Arruzagaz, Quinta Torreko alaheagaz, eskuordez ezkondu zan Bakioko Basigoko Andra Mari eleizan, Pantxoren osaba bat eskuordekoa izan zala. Ezkondu eta lasterrera joan zan Antonia Kubara, Pantxoren arrebei lursail batzuk itzita.

Andik atzera etorri he, etorri egin ziran. Pantxo, baina, aarko joan-etorrian ibiltan zan. Bakion bertan egozanean. Quinta Torren biziten lortuten ziran. Bertan jaiok ziran euren seme alabak.

Eta alan ibili ziran ALDEKOAko uriartetarrak, Kuba eta Bakioren arteko arakonakoetan. Baserrian jaiok eta andiki lez munduan ibili. Lurra landu eta atzerrian bear egin eta izerdia emon dabenean emoitza garbia.

Anartz ORMAZA

BERBALAPIKOA

eregi= etxea egin, eraiki.
 urte batzuk garrenean= urte batzuen buruan.
 sendi= familia
 lotura= zerikusi
 ezkon-sari= dote
 oinordetzan artu= gurasoetatik artu.
 obi= il()bi, sepultura.
 atan be= ain zuzen be.
 izenpetza= sinadura.
 umezaro= ume aroa.
 gudaroste= armada.
 eskuordez= nonoren izenean eta aalmenaz.

SAN PEDRO ETA ERLEA

(erri ipuina)

Jesusek, ikasleak lagun ebazala, itsasbazterrean zear joian baten, txalupa bat galdu-gordean ikusi eban. Orduan, San Pedrok alan esan ei eutson:

Jauna, ara an gizonak baragarra itsasoan. Baegaitik guztiak galdu bear dabe.

Urrengo aizeteak jo, txalupea iruli eta barrukoak ito egin ziran. San Pedrok ori ikusita, ortiko eta emetikoak esaten marmar ezion.

Gerotxuago, erlakumea enbor batetik dingilizka ikusita, Jesusek esan eutson:

– Pedro, gorde eik ori kolkoan.

Eta Pedrok, gorde egin.

Bajoiazan, bajoiazan, eta erle batek eztena sartu eutson Pedrori. Pedro, estu ta larri, asi zan jo bat eta jo bestea.

– Zer dok, Pedro, ba?, itaundu eutson Jesusek.

– Ba, Jauna, eztenka asi jat bat eta...


– Leen, bategaitik besteak ito diralako, marmarrean asi az. Eta orain ik, erle batek eztena sartu eustalaku, guztiak il gura dozak?

Olan baz_an, ez bazan,
 sartu daitela kalabazan.

Eta urten daiala

Artatxuko basoan.


Iniki MARTIARTU



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa